

PARTAIDETZA

SARRERA

Diagnostiko honen helburua partaidetza-proiektu baterako ezagutza praktikoko oinarri bat ematea denez, egokitzen jo da partaidetzari buruzko zenbait alderdi barne hartzea hemen.

Alderdi horiek definitzeko, irizpide teknikoak eta aurretiko esperientziak konbinatu dira eragile nagusiekin eta Getxo Kirolakeko zuzen-

daritzarekin izandako elkarrizketetan jasotako ekarpenekin.

Horrela, zenbait gai aurreratu dira, hala nola prozesuaren esparrua, identifikatutako gomen-
dioak eta mugak edo komunikazio-kanalak. Horrez gain, proposatzen ari den prozesuaren ahalmenaren eta egokitasunaren aurretiko ebaluazio bat barne hartu da.

PARTAIDETZA PROZESURAKO ESPARRU PROPOSAMENA

Partaidetzaren esparruak proiektua egingo den helburu orokorrak eta oinarrizko baldintzak definitzen ditu, ildo orokor batzuk edo prozesuak jarraitu beharko dizkion gutxieneko akordioak ezarriz, eta teknikarien taldearen proposamena eta parte hartu nahi duten pertsonen edo erakundearen itzaropenak egokitzen lagunduz.

Orain, atariko esparru bat azalduko dugu, Getxo Kirolakeko arduradunekin, Getxoko Udaleko zenbait ordezkariarekin eta diagnostiko-fasean zehar harremanetan jarritako beste eragile batzuekin izandako elkarrizketak kontuan hartuz garatutakoa. Behin betiko esparrua Thinking Fadura proiektuaren bigarren fasea hasten denean zehaztu beharko da.

Helburu orokorrak

Hurrengo fasearen helburua aurreproiektu bat egitea izango da, Fadurako kirol eremua berritzeko.

Prozesuaren garapenak Faduraren inguruko gizarte-harremanak eta sareak indartuko ditu, berrikuntza-proiektuan zehar konpromisoa eta inplikazioa sustatuz eta geroago jarraituz.

Aurreproiektu honek esku-hartzeak eta estrategiak sustatuko ditu, kirol instalazioak hobetzeko eta eremu libreak ahal den neurrian hiriko eta kirol parke publiko gisa irekitzeko, kategoria hauek kontuan hartuz: irekia, irisgarria, inklusiboa, berritzailea, iraunkorra, osasungarria eta segurua.

Horrez gain, proiektu honek, gaur egungo legegaldi planean proposatutako hiriko helburuak lortzen lagunduko du: bizitza-kalitatea, ohitura osasungarriak eta Fadura 4.0 (TIDB) bultzatzea.

Herritarrei aurreproiektu honen diseinuan aktiboki parte hartzera gonbidatuko zaie, entzute, komunikazio, gaikuntza, berrikuntza jardueren bidez, eta tokian bertan zuzenean esku hartuz.

Esku-hartzearen esparrua

Ikertze eta partaidetza esparrua Fadurako ingurrunera eta Getxo osora irekita dago, Fadurako etorkizunean eragin dezakeelako.

Esku hartzearen esparrua Getxo Kirolakek kudeatzen duen eremua eta inguru hurbil bat dira (Gobela ibaia, inguruko kaleak, Bolueko hezegunea...). Horietan, beste eragile batzuekin koordinatutako jarduerak egin daitezke.

Erantzukizuna eta lidergoa

Partaidetza-prozesu hau eta aurreproiektua Getxo Kirolak eskatu du, eta erakunde horri bakarrik dagokio. Hala ere, bere Kontseilu Errektorearen bidez Getxoko Udalari ere erantzuten dio.

Diseinatzen den proiektua geroago gauzatzen denean, erakundeetako beste eragile batzuek ere nahitaez parte hartuko dute, finantzatzeko, garatzeko eta gauzatzeko.

Faseak eta epeak

Sortu zenetik prozesuak fase hauek barne hartzen ditu:

- Diagnostikoaren fasea: Lau hileko iraupena. Fase hau dokumentu honekin amaitzen da, eta partaidetza-prozesua prestatzeko da.
- Garapen-fasea: 6 eta 9 hilabete artekoa izango da. Fase honetan, partaidetza-prozesua izango da eta aurreproiektua diseinatu da.

Aurrekontua

Proposamenen definizioan ez a jasotzen aurrekontu-mugarik, baina iraunkortasun arrazoiak kontuan hartuz ez da milioi askoko inbertsiorik jasotzen. Proiektua geroago gauzatu ahalko da, faseetan, finantzazioa errazteko.

Partaidetza-sistemearekin integratzea

Prozesuak bere garapen-erritmoak izango ditu, baina udalerriko beste partaidetza-prozesu batzuekin koordinatuz planifikatuko da, eragozte saihestuz eta ahal den neurrian sinergiak bilatuz.

Ahal bada, eta hori da helburua, dauden partaidetza-egiturak eta organoak erabiliko dira, beharrezkoak ez diren bikoizteak saihesteko.

Sistema politikoarekin integratzea

Diagnostikoaren fasean zehar, alderdi politikoekin jarri ginen harremanetan, proiektuaren berri emateko eta Faduraren inguruan zuten iritzia entzuteko; baita haien iradokizunak jasotzeko eta prozesuaren hurrengo faseetarako prest dauden jakiteko ere.

Udalean ordezkariak dituzten alderdi politiko guztiek proiektuan parte hartzen dute dagoneko, aurreikusitako erakunde-eremuen bidez (Kontseilu Errektorea, Udalbatza eta abar). Hurrengo faseak prozesuan duen partaidetza konstruktiboa baloratu beharko du.

Abiapuntuko beste konpromiso batzuk

Parke publiko gisa irekitzearen helburua Fadurako eremu librean edozein pertsonak gizarte-eta kultura-jarduera askorentzat erabiltzeko eremu publiko bihurtzea da. Aldaketa hori egingo da, gaur egungo kirol-erabilera errespetatuz eta beste erabilera batzuekin batera erabiltzen den bitartean bere baldintzak hobetuz.

Partaidetza-prozesuaren ekarpenak irizpide gisa sartuko dira parkearen aurreproiektuaren diseinuan. Kontrakorik erabakitzen ez bada salbu, teknikari taldeak (eta horren bitartez, Getxo Kirolakek) ez du konpromiso loteslerik izango, haien entzun, aztertu, eta ahal den neurrian, aurreproiektu honetan sartu besterik ez du egin beharko.

Legez loteslea ez bada ere, lehentasunezkatzat hartzen da prozesuan zehar proposatutako, eztabaidatutako eta gauzatutako guztia sartzea, eta Faduran eta Getxon benetako eragina izatea. Horretarako, ahalik eta eragilerik gehien parte hartzearen alde egingo da. Talde tekniko eta politikoa gainbegiratu beharko dute, proiektuaren garapena eta txertatzea bermatzeko.

GOMENDIO OROKORRAK

Helburuak argi izatea

Partaidetza-prozesurako funtsezkoa da helburuak eta mugak modu egokian definitzea, partaidetza-esparru bat finkatzea eta hori guztia eragile interesdunei argitasunez jakinaraztea.

Lana eta familia-bizitza bateratzea eta ordutegiak

Jarduerak antolatzerako orduan funtsezkoa da egon daitezkeen parte-hartzaileen ordutegiak ezagutzea. Alderdi hori doitzeko kontsulta zehatzago bat egin behar izango bada ere, jardueraren arabera, eragileei egindako hasierako azterketa baten arabera:

Profil desberdineko pertsonak erakarri nahi bada, ordutegirik egokiena astean zehar da, arratsalde, 19:00etatik aurrera.

Mugikortasunari buruzko inkestan nolabaiteko desberdintasuna antzematen da generoaren arabera. Gizonak mugatuago daude lan-ordutegiarengatik eta emakume asko umeen ordutegien mende daude, beraz, eskolarik gabeko egunetan, haurtzaindegi-zerbitzu bat sartzeara edo hurrekin beste jarduera batzuk antolatzea onuragarria izan daiteke.

Hurrekin egindako jarduerak asteburuetara heda daitezke, arratsaldeetara, ikastetxetik ateratzen direnetatik aurrera (17:00), edo baita eskola dagoen ordutegian ere, jarduera ikastetxeekin koordinatzen bada.

Zainketetan edo etxeko lanetan aritzen diren pertsonen igande arratsaldeetan denbora gehiago dute.

Iraupena eta errepikatzea

Jarduera laburregiak nahikoa emankorrak ez izateko joera dute, baina luzeek energia handiagoa eskatzen dute. Lana eta familia bizitza bateratzeko arazo handiagoa ekartzen dute eta garatzen diren bitartean parte-hartzaileak galtzeko joera dute.

Helduekin egindako lanerako 2 ordu batezbesteko ona dela egiaztatu zen.

Hurrekin egindako lanerako jarduerak zertxobait laburragoak izan daitezke. 1 ordu ingurukoak.

Ikasleekin egindako jarduerak trinkoagoak izan daitezke, zenbait ordu edo eguneko iraupena izan, curriculum akademikoaren barruan sartzen badira.

Errepikakorrak diren jarduerak deialdi jaitsierra handia izaten dute lehen saioan, hasieran interes eta konpromiso handiak sortu badira eta parte-hartzaileekin komunikazio hurbil eta arina izaten bada.

Kokapena eta irisgarritasuna

Kokapena edozein jarduerara joatea nabarmen errazten edo zailtzen duen beste alderdi bat da, biztanleriaren zenbait sektoretarako bereziki.

Jarduera baten xede- publikoa Fadurako erabiltzaileak badira, han egin daiteke, eragozpen gehigarriarik ekarri gabe.

Hala ere, zenbaitentzat Fadura ez da oso leku irisgarria. Adinekoen kasua dugu, izan ere, mendetasun mailaren arabera, kokapen hori eragozpen gaundiezina izan daiteke. Horrez gain, nolabaiteko zailtasuna egon daiteke neska-mutil, nerabe eta gazte ez-erabiltzaileak, baliabide ekonomiko gutxi dituzten edo kirolean interes eskasa duten pertsonak erakartzeko. Zenbait talde hobeto parte har dezakete beraien konfiantzazko eremuetatik egiten badute.

Hori gaunditzeko, tokiak jardueretarako dibertsifikatzea eta egokitzea erabakigarria izan daiteke, baita deialdia edo jarduera mota egiten diren moduak ere. Diagnostikoan zehar dagoeneko zenbait toki aurkitu ziren jardueren egoitza izateko.

AURREIKUS DAITEZKEEN MUGAK

Faduran:

- Garagardotegia (berrikuntza-proiektuaren denboren arabera)
- Txikigunea (eremu iraunkor posiblea, bateragarritasuna beste proiektu batzuekin berrikustekoa)
- Ekitaldi-aretoa (puntualki)
- Sarrerako hall-a (aztergai)
- Eremu irekiak (aire zabalean edo aldi baterako egituraren bat aurretik instalatuz)
- Pista estaliak (eguraldi txarra egiten bada, irekita dauden eremuen aukera gisa, ohiko kirol erabileran ere kontuan hartzea baloratzten bada).

Faduratik kanpo:

- Gazteleku (nerabeentzat)
- “Kukupraka” ludoteka (umeentzat)
- Kultur Etxea (hainbat publiko)
- Ingurumen Ikasgela (gazte-taldeentzat, hala ere, Fadurako kiroldegiarena baino urrunago dago).

Komunikazioa eta deialdia

Jarduera guztietan euskara eta gaztelania erabiltzea bilatu behar da, komunikazioan bereziki. Komunikazio ofizialek testua euskaraz eta gaztelaniaz izan behar dute, ordena horretan lehentasunez. Horrek, idazte eta editatze prozesu bat eskatzen du, lineala, eta denbora-aurreikuspen handiarekin.

Komunikazio eta deialdi kanalak jarduera bakoitzera eta xede publikora egokitu beharko dira, kanal zehatzagoen eta komunikazioaren eraginkortasunaz baliatuz, eta komunikazio zuzenaz eta irekiaz ahaztu gabe.

Ordezkarri gutxien dituzten edo ahulenak diren taldeek komunikazio handiagoa eta zorrotzagoa eskatzen dute, eta horrez gain, komunikazio-formatuetan gehiago agertzea eskatzen dute, proiektuaren deialdietan eta jakinarazpen publikoetan aintzat hartuta senti daitezen.

Eremu publikoaren erabilera

Eremu publikoan ekitaldiak egiteko, alde aurretik udalaren baimena behar da, eta aseguru bat ere kontratatu behar da. Baldintza horiek eta beste batzuk aurreikusi beharko dira, egiten diren jarduera motaren arabera.

Beste partaidetza-prozesu batzuk

Hurrengo fasea garatuko den datak direla eta, ziur asko beste partaidetza-prozesu batzuekin batera egingo dira, hala nola 2018ko aurrekontu parte-hartzaileena.

Horrek, parte hartzera deitu diren herritarrak nahastea, aspertzea eta gogaitzea ekar dezake, baita deialdiaren gaitasunean eragin dezaketean programazio-gatazka ere.

Hori saihesteko komunikazio arina izan beharko da Udalaren Komunikazio, Herri-tarren Arreta, Gardentasun eta Herri-tarren Partaidetza Sailarekin, prozesuak bateragarri izan daitezen eta haien artean lankidetzak edo sinergiak bilatzeko.

Klima

Prozesuaren hurrengo faserako zenbait hilabete iraupena aurreikusten denez, eta kanpoko jarduerak proiektuan zeregin garrantzitsua izan dezaketenez, ziur asko, garapenean, guztiz kontrakoak diren egoerak izango dira.

Gomendatzen da aire zabaleko jarduerak eguraldi oneko garaietan egitea, eta beti ondo egokitutako eremuak ere izatea aukera gisa. Ikusi ingurumenari buruzko kapitulua Getxoko klimari buruzko informazioa izateko.

KOMUNIKAZIO KANALA

Komunikazioa funtsezkoa izango da partaide-tza-prozesu osoan, zenbait helburu betez, hala nola proiektuaren berri ematea, ezagutza eta informazioa partekatzea, Getxoko pertsonen eta erakundeen parte hartzea gonbidatzea, eta ekarpenak “entzutea” edo bitzea.

Eragile desberdinek parte hartzea nahi duguenez, eta komunikabide desberdinak erabiltzen dituztenez, kanal desberdin eta osagarriak beharko dira jardueraren eta bere xede publikoaren arabera.

Oro har, mezuaren hartzaileak jadanik dauden kanalak eta eremuak erabiltzea eraginkorragoa izan daitekeen arren, proiektuaren berezko kanalak sartzeari edo, behar jakinen arabera, beste batzuk sortzea, kontuan hartuko da.

Bereizi behar dira kanal generiko edo irekiak eta berariazkoak. Esaterako, gizarte-sareak kanal ireki gisa erabiltzen dira, baina gerta daiteke deialdiatarako hedabiderik egokiena ez izatea, hedadura mugatua dutelako eta konpromiso eskasa eragiten dutelako. Diagnostiko honen atalean, eragile nagusien sarea deskribatzen den tokian, zenbait talderengana heltzeko egokiak diren berariazko kanalei buruzko gako jakin batzuk aipatzen dira. Orain, erabilgarri diren kanal generiko nagusiak aipatuko ditugu:

Getxo Kirolak kanalak

- Twitter: 1.672 jarraitzaile
- Facebook: 2.558 jarraitzaile
- Instagram: 435 jarraitzaile
- Kirolberri: Udalaren webean dagoen atala.
- Posta elektronikokoaren banaketa-zerrenda: Abonatuen 8.800 helbide
- Komunikazioa Fadura eremu fisikoetan (kartelen, pantailen, liburuxken eta bestelakoen bidez), egunean 1.000-2.000 pertsonetara heltzeko aukerarekin.

Getxoko Udalaren kanalak

- Udalaren web-orria: Agenda-atal bat eta berrien atal bat du, orokorrak direnak, eta arloka.
- Twitter @GetxoUdala: 3.213 jarraitzaile
- Facebook “Getxo Udala”: 4.732 jarraitzaile
- Youtube “Getxo Udala”: 129 harpidedun

Beste kanal batzuk

Internet:

- Proiektuaren web-orria: thinkingfadura.eus
- Hashtagak zeharkako kanal modukoak dira, aplikazio jakinak baino gehiago, edozeinetan erraz jakinaraz eta bila daitezkeelako. Toki mailan garrantzitsuenak #Getxo #GetxoBiziEzazu eta #GetxoKirolak dira. Beste generiko batzuk, hala nola #participación, #deporte, eta abar, irakurle gehiago, aditua-goak eta Getxotik kanpokoak lortzeko balio dezakete.
- Facebook “Getxo” (web-orri independentea): 3.102 jarraitzaile
- Facebook “Getxo Kultura”: 2.032 jarraitzaile
- Twitter @GetxoGobIrekia: 200 jarraitzaile
- Facebook “GetxoGobIrekia”: 102 jarraitzaile
- Bertako klubak eta establezimenduen kanalak, batzuetan kanal ofizialak baino hobeak direnak (esaterako, Autocine Getxo, 15.036 jarraitzaile, Getxo Errugbia, 2.595 jarraitzaile, Ciclos Getxo, 977).
- Kultur Etxeak eta Ekonomia Sustapenerako sailak (eta beste antolatzaile batzuk) posta elektronikoko buletina dute.

Komunikabideak:

- Getxoberri: Getxoko informazio orokorrari eta berriei buruzko asteroko argitalpena.
- Bertako beste argitalpen batzuk: El Correo (“Eskuinaldea” atala), Deia (“Hemendik” eranskin hamaboskaria), Hiruka...

Irratia:

- Getxo Irratia
- Bertako beste irrati batzuk: Vinilo FM

PROZESUAREN AURRETIKO BALORAZIOA

Ebaluazio-esparrua

Partaidetza-prozesuari begira komenigarria da helburu eta ebaluazio-metodologia batzuk definitzea, dagozkien adierazleekin.

Definizio hori proiektu honen hurrengo faseari dagokion proposamen teknikoan egin beharko bada ere, diagnostiko honetan gaur egungo fasean garrantzitsuak diren zenbait alderdi berrikusi dira dagoeneko, Demokrazia Parte-hartzailearen Nazioarteko Behatokiaren “Partaidetza-prozesuen ebaluazio gida praktikoak” proposatutako batzuetan oinarritutakoak, aurretiko ebaluazio bat egiteko esparru orokor egokia ematen duena.

Garrantzia

Proiektuaren eta bere helburuen garrantzia bi alderditan ikus daiteke:

Agenda politikoarekiko harremana: Oso ondo egokitzen dira, legealdiko planean proposatutako hiriko helburu nagusietako batzuei erreparatzen dielako: bizitza-kalitatea, ohitura osasungarriak eta Fadura 4.0 (TIDB) bultzatzea.

Herritarren balorazio subjektiboa: Proiektuaren gaiak elkarrizketatutako eragileak erakartzen ditu eta gaia bera interesatzen zaie. Proiektua beharrezkotzat eta desiragarritzat hartzen da, eta Fadurarekin zerikusia duten hobekuntza-eskaera askori erantzuteko aukera da.

Getxo Kirolakeko abonatuaren kopurua, biztanleriaren herena dena, proiektuaren garrantziaren adierazle ona ere bada.

Adostasuna

Proiektua ia aho batez onartu zuten.

Onarpen politikoa: Getxon ordezkariak dituzten 6 alderdiekin bilerak egin ziren eta guztietan interesa eta onarpena agertu zuten proiektuarekiko. Zenbait zalantza bakarrak adierazi ziren

partaidetza-prozesuaren benetako beharrari eta eraginkortasunari dagokienez. Ikuspegiari dagokionez, erreparoa ere agertu ziren.

Herritarren onarpena: Gizarte zibileko erakundeekin bilerak egin ziren eta guztietan interesa agertu zuten. Diagnostikotik kanpo dagoeneko, berriazko deialdirik egin gabe, hainbat proposamen jaso ziren webaren bidez, eta horietako asko, oso landuta zeuden.

Teknikarien onarpena: Udaleko sailekin bilerak egin ziren eta guztietan iritzi positiboak eta prest agertu ziren.

Zeharkakotasuna

Diagnostikotik dagoeneko alderdi guztiek, udaleko sailek eta gizarte zibilak parte hartu zuten. Eragileen artean integrazteko aintzat hartzeko borondate esanguratsua antzeman genuen, eta horrek adierazten du proiektuak zeharkakotasunez parte hartzeko ahalmen handia duela.

Ekimena eta lidergoa

Prozesuaren ekimena Getxo Kirolakena da, erakunde autonomoa dena, eta udalbatzaren laguna du Kontseilu Errektorearen eta Kiroletako zinegotziaren bidez.

Esku hartzeko gaitasuna

Proiektuaren eragile sustatzaileek beharrezko eskumenak dituzte hark barne hartutako esparruan esku hartzeko. Diagnostikoan zehar beste eragile batzuekin harremanetan hasi ginen, arloan eskumenak zituztenekin, hala nola URA agentziarekin.

Udaleko partaidetza-sisteman integratzea

Proiektua dauden partaidetza-kanaletatik kanpo abian jarri zen, baina diagnostikotik dagoeneko ekintzak hasi ziren jardueren egutegia eta Herritarren Partaidetzako sailarekiko komunikazioa koordinatzeko.

ILDO ESTRATEGIKOAK - KUDEAKETA ETA PARTAIDETZA

Langileek lehentasunez prozesuan parte hartzea, landuko diren gaiekin zer harreman duten identifikatuz, eta parte hartzen laguntzeko mekanismoak bilatuz.

Hiri-berrikuntzako prozesua horri eusten dion gizarte-sarea indartzearekin lotzea.

Jarduera-arloan eskumenak dituzten erakunde guztiei informazioa ematea eta erakunde guztiak inplikatur mantentzea.

Abonatuen eskubideak eta betebeharrak argi identifikatuta izatea, parkeak publikoari eragiteko moduari arreta jarritz.

Faduraren kudeaketari sormenez ekitea, abonatzeko eta etorkizuneko parke irekira sartzeko beste modalitate batzuk aztertuz

Esparru argia eta adiera bakarreko jarrera hartzea proiektua jakinarazten denetik aukerak kudeatzeko.

Jardueren ordutegia, maiztasuna, kokapena, formatua eta jakinarazteko modua bakoitzaren xede-publikoaren arabera egokitzea.

Prozesuan sor daitezkeen mugak, eragozpenak eta interferentziak aurrerapenarekin aurreikusten saiatzea.

Kirol parke berrirako aurreproiektuaz harago parte hartzen jarraitzeko moduak aztertzea eta horretarako baliabideak aurreikustea.

Aurreproiektuaren ondorengo garapen-estrategia baten zirriborroa egitea: proiektuetan eta proiektu pilotuetan, aurrekontuan eta bestelakoetan banatzea.